"Auditoretza-txostenaren sinadura elektronikoa haren osotasunaren eta edukiaren justifikazio eta autentifikazio gisa bakarrik ematen da, eta baita sinatzailearen nortasunaren justifikazio gisa ere. Auditoretza-txostenaren data, ondorio guztietarako ulertuta -bereziki, Espainian indarrean dagoen kontu-auditoretzaren araudia aplikatzeko-, lana egin duen kontu-auditore arduradunaren eskuzko sinadurapean ageri da."

BNFIX KLZ AUDITORES, S.L.P., C.I.F. B-01369503, inscrita en el R.M. de Álava: Tomo 1150, Folio 197, Hoja VI-10129, Inscripción 5ª, Inscrita en el R.O.A.C. con el nº S1632

# V.3.1.- Balantzea / Balance

| 2022EKO EKITALDIAREN ITXIERA BALANTZEA - INDESA 2010<br><br>BALANCE DE SITUACIÓN DEL EJERCICIO 2022 - INDESA 2010 | | 2022KO EGITERAPENA<br><br>EJECUCIÓN 2022 | 2021KO EGITERAPENA<br><br>EJECUCIÓN 2021 |
|---|---|---|---|
| AKTIBOA | ACTIVO | | |
| A) AKTIBO EZ KORRONTEA | A) ACTIVO NO CORRIENTE | 8.110.243,57 | 8.638.460,36 |
| I. IBILGETU UKAEZINA | I. INMOVILIZADO INTANGIBLE | 489.852,45 | 560.043,80 |
| 1. Garapena | 1. Desarrollo | | |
| 2. Kontzesioak | 2. Concesiones | 426.807,77 | 489.435,18 |
| 3. Patenteak, lizentziak, markak eta antzekoak | 3. Patentes, licencias, marcas y similares | | |
| 4. Merkataritza funtsa | 4. Fondo de comercio | | |
| 5. Informatika aplikazioak | 5. Aplicaciones informáticas | 63.044,68 | 70.608,62 |
| 6. Bestelako ibilgetu ukiezinak | 6. Otro inmovilizado intangible | | |
| 7. Emakida akordioa, aktibo arautuan | 7. Acuerdo de concesión, activo regulado | | |
| 8. Emakida akordioak, finantza aktibazioa | 8. Acuerdos de concesión, activación financiera | | |
| II. IBILGETU MATERIALA | II. INMOVILIZADO MATERIAL | 7.598.422,81 | 8.061.928,75 |
| 1. Lursailak eta eraikuntzak | 1. Terrenos y construcciones | 5.471.853,71 | 5.749.102,88 |
| 2. Instalazio teknikoak eta bestelako ibilgetu materialak | 2. Instalaciones técnicas y otro inmovilizado material | 2.126.569,10 | 2.312.825,87 |
| 3. Uneko ibilgetua eta aurrerakinak | 3. Inmovilizado en curso y anticipos | | |
| III. HIGIEZINETAKO INBERTSIOAK | III. INVERSIONES INMOBILIARIAS | | |
| 1. Lurrak | 1. Terrenos | | |
| 2. Eraikuntzak | 2. Construcciones | | |
| IV. TALDEKO ENPRESETAN ETA ENPRESA ELKARTUETAN EPE LUZERA EGINDAKO INBERTSIOAK | IV. INVERSIONES EN EMPRESAS DEL GRUPO Y ASOCIADAS A LARGO PLAZO | 11.852,48 | 11.852,48 |
| 1. Ondare tresnak | 1. Instrumentos de patrimonio | 11.852,48 | 11.852,48 |
| 2. Enpresei emandako kredituak | 2. Créditos a empresas | | |
| 3. Zorraren balio adierazgarriak | 3. Valores representativos de deuda | | |
| 4. Eratorriak | 4. Derivados | | |
| 5. Beste finantza aktibo batzuk | 5. Otros activos financieros | | |
| V. EPE LUZERAKO FINANTZA INBERTSIOAK | V. INVERSIONES FINANCIERAS A LARGO PLAZO | 10.115,83 | 4.635,33 |
| 1. Ondare tresnak | 1. Instrumentos de patrimonio | | |
| 2. Kreditua hirugarrenei | 2. Créditos a terceros | | |
| 3. Zorraren balio adierazgarriak | 3. Valores representativos de deuda | | |
| 4. Eratorriak | 4. Derivados | | |
| 5. Beste finantza aktibo batzuk | 5. Otros activos financieros | 10.115,83 | 4.635,33 |
| VI. GERORATUTAKO ZERGEN AKTIBOAK | VI. ACTIVOS POR IMPUESTO DIFERIDO | | |

| 2022EKO EKITALDIAREN ITXIERA BALANTZEA - INDESA 2010<br>BALANCE DE SITUACIÓN DEL EJERCICIO 2022 - INDESA 2010 | | 2022KO EGITERAPENA<br>EJECUCIÓN 2022 | 2021KO EGITERAPENA<br>EJECUCIÓN 2021 |
|---|---|---|---|
| AKTIBOA | ACTIVO | | |
| B) AKTIBO KORRONTEA | B) ACTIVO CORRIENTE | 7.182.206,47 | 6.828.514,86 |
| I. SALTZEKO MANTENDUTAKO AKTIBO EZ KORRENTEAK | I. ACTIVOS NO CORRIENTES MANTENIDOS PARA LA VENTA | | |
| II. IZAKINAK | II. EXISTENCIAS | 436.121,42 | 344.077,54 |
| 1. Merkataritzakoak | 1. Comerciales | 436.121,42 | 344.077,54 |
| 2. Lehengaiak eta beste hornidura batzuk | 2. Materias primas y otros aprovisionamientos | | |
| 3. Fabrikazio bideko produktuak | 3. Productos en curso | | |
| 4. Produktu bukatuak | 4. Productos terminados | | |
| 5. Azpiproduktuak, hondarrak eta berreskuratutako materialak | 5. Subproductos, residuos y materiales recuperados | | |
| 6. Aurrerakinak hornitzaileei | 6. Anticipos a proveedores | | |
| III. MERKATARITZAKO HARTZEKODUNAK ETA KOBRATU BEHARREKO BESTE KONTU BATZUK | III. DEUDORES COMERCIALES Y OTRAS CUENTAS A COBRAR | 5.545.645,11 | 4.001.392,43 |
| 1. Salmentengatiko eta zerbitzuengatiko bezeroak | 1. Clientes por ventas y prestaciones de servicios | 2.710.141,41 | 2.108.096,78 |
| 2. Bezeroak, taldeko enpresak eta enpresa elkartuak | 2. Clientes, empresas del grupo y asociadas | | |
| 3. Bestelako zordunak | 3. Deudores varios | 185.633,13 | 17.697,85 |
| 4. Langileak | 4. Personal | 715,63 | 1.552,29 |
| 5. Zerga arrunten aktiboak | 5. Activos por impuesto corriente | | |
| 6. Administrazio Publikoekin beste kreditu batzuk | 6. Otros créditos con las Administraciones Públicas | 2.649.154,94 | 1.874.045,51 |
| 7. Akziodunak (bezeroak) eskatutako ordainketengatik | 7. Accionistas (socios) por desembolsos exigidos | | |
| IV. TALDEKO ENPRESETAN ETA ENPRESA ELKARTUETAN EOE MOTZERA EGINDAKO INBERTSIOAK | IV. INVERSIONES EN EMPRESAS DEL GRUPO Y ASOCIADAS A CORTO PLAZO | | |
| 1. Ondare tresnak | 1. Instrumentos de patrimonio | | |
| 2. Enpresei emandako kredituak | 2. Créditos a empresas | | |
| 3. Zorraren balio adierazgarriak | 3. Valores representativos de deuda | | |
| 4. Eratorriak | 4. Derivados | | |
| 5. Beste finantza aktibo batzuk | 5. Otros activos financieros | | |
| V. EPE MOTZERAKO FINANTZA INBERTSIOAK | V. INVERSIONES FINANCIERAS A CORTO PLAZO | 509.600,00 | |
| 1. Ondare tresnak | 1. Instrumentos de patrimonio | | |
| 2. Enpresei emandako kredituak | 2. Créditos a empresas | | |
| 3. Zorraren balio adierazgarriak | 3. Valores representativos de deuda | | |
| 4. Eratorriak | 4. Derivados | | |
| 5. Beste finantza aktibo batzuk | 5. Otros activos financieros | 509.600,00 | |
| VI. EPE LABURRERAKO PERIODIFIKAZIOAK | VI. PERIODIFICACIONES A CORTO PLAZO | | |
| VII. ESKU-DIRUA ETA ANTZEKO BESTE AKTIBO LIKIDOAK | VII. EFECTIVO Y OTROS ACTIVOS LIQUIDOS EQUIVALENTES | 690.839,94 | 2.483.044,89 |
| 1. Diruzaintza | 1. Tesorería | 690.839,94 | 2.483.044,89 |
| 2. Antzeko beste aktibo likido batzuk | 2. Otros activos líquidos equivalentes | | |
| AKTIBO (A+B), GUZTIRA | TOTAL ACTIVO (A+B) | 15.292.450,04 | 15.466.975,22 |

| 2022EKO EKITALDIAREN ITXIERA BALANTZEA - INDESA 2010<br>BALANCE DE SITUACIÓN DEL EJERCICIO 2022 - INDESA 2010 | | 2022KO EGITERAPENA<br>EJECUCIÓN 2022 | 2021KO EGITERAPENA<br>EJECUCIÓN 2021 |
|---|---|---|---|
| ONDARE GARBIA ETA PASIBOA | PATRIMONIO NETO Y PASIVO | | |
| A) ONDARE GARBIA | A) PATRIMONIO NETO | 13.801.596,48 | 14.105.673,43 |
| | | | |
| A-1) FUNTS PROPIOAK | A-1) FONDOS PROPIOS | 12.703.412,20 | 12.844.124,30 |
| I. KAPITALA | I. CAPITAL | 8.864.550,00 | 8.864.550,00 |
| 1. Eskrituratutako kapitala | 1. Capital escriturado | 8.864.550,00 | 8.864.550,00 |
| 2. (Eskatu gabeko kapitala) | 2. (Capital no exigido) | | |
| II. JAULKIPEN SARIA | II. PRIMA DE EMISION | | |
| III. ERRESERBAK | III. RESERVAS | 4.031.876,76 | 2.846.010,64 |
| 1. Legezkoak eta estatutuetakoak | 1. Legal y estatutarias | 214.028,28 | 100.464,62 |
| 2. Bestelako erreserbak | 2. Otras reservas | 3.817.848,48 | 2.745.546,02 |
| IV. (ONDARE PROPIOAN AKZIOAK ETA PARTAIDETZAK) | IV. (ACCIONES Y PARTICIPACIONES EN PATRIMONIO PROPIAS) | | |
| V. AURREKO EKITALDIETAKO EMAITZAK | V. RESULTADOS DE EJERCICIOS ANTERIORES | | |
| 1. Gerakina | 1. Remanente | | |
| 2. (Aurreko ekitaldietako emaitza negatiboak) | 2. (Resultados negativos de ejercicios anteriores) | | |
| VI. BAZKIDEEN BESTELAJO EKARPENAK | VI. OTRAS APORTACIONES DE LOS SOCIOS | | |
| VII. EKITALDIKO EMAITZA | VII. RESULTADO DEL EJERCICIO | -193.014,56 | 1.133.563,66 |
| VIII. (KONTURAKO DIBIDENDUA) | VIII. (DIVIDENDO A CUENTA) | | |
| IX. ONDAREKO BESTE TRESNA BATZUK | IX. OTROS INSTRUMENTOS DEL PATRIMONIO NETO | | |
| A-2) BALIO ALDAKETEN DOIKUNTZAK | A-2) AJUSTES POR CAMBIOS DE VALOR | | |
| I. SALTZEKO DAUDEN FINANTZA AKTIBOAK | I. ACTIVOS FINANCIEROS DISPONIBLES PARA LA VENTA | | |
| II. ESTALDURA ERAGIKETAK | II. OPERACIONES DE COBERTURA | | |
| III. BESTE BATZUK | III. OTROS | | |
| A-3) JASOTAKO DIRULAGUNTZAK, DOHAINTZAK ETA LEGATUAK | A-3) SUBVENCIONES, DONACIONES Y LEGADOS RECIBIDOS | 1.098.184,28 | 1.261.549,13 |

| 2022EKO EKITALDIAREN ITXIERA BALANTZEA - INDESA 2010<br><br>BALANCE DE SITUACIÓN DEL EJERCICIO 2022 - INDESA 2010 | | 2022KO EGITERAPENA<br><br>EJECUCIÓN 2022 | 2021KO EGITERAPENA<br><br>EJECUCIÓN 2021 |
|---|---|---|---|
| ONDARE GARBIA ETA PASIBOA | PATRIMONIO NETO Y PASIVO | | |
| B) PASIBO EZ KORRONTEA | B) PASIVO NO CORRIENTE | 25.116,01 | 28.279,97 |
| I. EPE LUZERAKO HORNIDURAK | I. PROVISIONES A LARGO PLAZO | | |
| 1. Obligazioak langileei epe luzera emandako prestazioengatik | 1. Obligaciones por prestaciones a largo plazo al personal | | |
| 2. Ingurumen ekintzak | 2. Actuaciones medioambientales | | |
| 3. Horniketak berregituraketagatik | 3. Provisiones por reestructuración | | |
| 4. Bestelako hornidurak | 4. Otras provisiones | | |
| II. EPE LUZERAKO ZORRAK | II. DEUDAS A LARGO PLAZO | 25.116,01 | 28.279,97 |
| 1. Obligazioak eta negozia daitezkeen beste balore batzuk | 1. Obligaciones y otros valores negociables | | |
| 2. Kreditu erakundeekiko zorrak | 2. Deudas con entidades de crédito | | |
| 3. Hartzekodunak finantza errentamenduengatik | 3. Acreedores por arrendamiento financiero | | |
| 4. Eratorriak | 4. Derivados | | |
| 5. Beste finantza pasibo batzuk | 5. Otros pasivos financieros | 25.116,01 | 28.279,97 |
| III. TALDEKO ENPRESEKIN ETA ENPRESA ELKARTUEKIN EPE LUZERAKO ZORRAK | III. DEUDAS CON EMPRESAS DEL GRUPO Y ASOCIADAS A LARGO PLAZO | | |
| IV. GERORATUTAKO ZERGEN PASIBOAK | IV. PASIVOS POR IMPUESTO DIFERIDO | | |
| V. EPE LUZERAKO PERIODIFIKAZIOAK | V. PERIODIFICACIONES A LARGO PLAZO | | |
| C) PASIBO KORRONTEA | C) PASIVO CORRIENTE | 1.465.737,55 | 1.333.021,82 |
| I.SALTZEKO MANTENDUTAKO AKTIBO EZ KORRONTEEKIN LOTUTAKO PASIBOAK | I.PASIVOS VINCULADOS CON ACTIVOS NO CORRIENTES MANTENIDOS PARA LA VENTA | | |
| II. EPE LABURRERAKO HORNIDURA | II. PROVISIONES A CORTO PLAZO | 9.000,00 | 30.750,00 |
| III. EPE LABURRERAKO ZORRAK | III. DEUDAS A CORTO PLAZO | 6.182,83 | 2.614,18 |
| 1. Obligazioak eta negozia daitezkeen beste balore batzuk | 1. Obligaciones y otros valores negociables | | |
| 2. Kreditu erakundeekiko zorrak | 2. Deudas con entidades de crédito | | |
| 3. Hartzekodunak finantza errentamenduengatik | 3. Acreedores por arrendamiento financiero | | |
| 4. Eratorriak | 4. Derivados | | |
| 5. Beste finantza pasibo batzuk | 5. Otros pasivos financieros | 6.182,83 | 2.614,18 |
| IV. TALDEKO ENPRESEKIN ETA ENPRESA ELKARTUEKIN EPE LABURRERAKO ZORRAK | IV. DEUDAS CON EMPRESAS DEL GRUPO Y ASOCIADAS A CORTO PLAZO | 50.248,76 | 118.977,76 |
| V. MERKATARITZAKO HARTZEKODUNAK ETA ORDAINDUBEHARREKO BESTE KONTU BATZUK | V. ACREEDORES COMERCIALES Y OTRAS CUENTAS A PAGAR | 1.400.305,96 | 1.180.679,88 |
| 1. Hornitzaileak | 1. Proveedores | 347.667,63 | 324.443,06 |
| 2. Hornitzaileak, taldeko enpresak eta enpresa elkartuak | 2. Proveedores, empresas del grupo y asociadas | | |
| 3. Hainbat hartzekodun | 3. Acreedores varios | 485.550,19 | 344.430,22 |
| 4. Langileak (ordaintzeko dauden ordainsariak) | 4. Personal (remuneraciones pendientes de pago) | 205.095,25 | 206.378,47 |
| 5. Zerga arrunten pasiboak | 5. Pasivos por impuesto corriente | | 95.898,01 |
| 6. Administrazio Publikoekin beste zor batzuk | 6. Otras deudas con las Administraciones Públicas | 361.992,89 | 209.530,12 |
| 7. Bezeroen aurrerakinak | 7. Anticipos de clientes | | |
| VI. EPE LABURREKO PERIODIFIKAZIOAK | VI. PERIODIFICACIONES A CORTO PLAZO | | |
| ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZTIRA (A+B+C) | TOTAL PATRIMONIO NETO Y PASIVO ( A+B+C) | 15.292.450,04 | 15.466.975,22 |

# V.3.2.- Galdu-irabazien kontua / Cuenta de Pérdidas y Ganancias

| 2022KO EKITALDIARI DAGOKION SARREREN ETA GASTUEN KONTUA - INDESA 2010<br><br>CUENTA DE PERDIDAS Y GANANCIAS CORRESPONDIENTE AL EJERCICIO 2022 - INDESA 2010 | | 2022KO EGITERAPENA<br><br>EJECUCIÓN 2022 | 2021KO EGITERAPENA<br><br>EJECUCIÓN 2021 |
|---|---|---|---|
| A) ERAGIKETA JARRAITUAK | A) OPERACIONES CONTINUADAS | | |
| 1. Negozio zifren zenbateko garbia | 1. Importe neto de la cifra de negocios | 16.506.394,01 | 15.830.994,14 |
| a) Salmentak | a) Ventas | | |
| b) Zerbitzu emateak | b) Prestaciones de servicios | 16.506.394,01 | 15.830.994,14 |
| 2. Produktu burutuen eta fabrikazio bidean dauden produktuen izakinak aldatzea | 2. Variación de existencias de productos terminados y en curso de fabricación | -2.808,89 | 61,71 |
| 3. Enpresak bere aktiborako egindako lanak | 3. Trabajos realizados por la empresa para su activo | | |
| 4. Hornidurak | 4. Aprovisionamientos | -1.696.779,24 | -1.561.145,30 |
| a) Merkantzien kontsumoa | a) Consumo de mercaderías | | |
| b) Lehengaien eta bestelako materia kontsumigarrien kontsumoa | b) Consumo de materias primas y otras materias consumibles | -1.579.261,05 | -1.464.878,31 |
| c) Beste enpresa batzuk egindako lanak | c) Trabajos realizados por otras empresas | -117.518,19 | -96.266,99 |
| d) Merkantzien, lehengaien eta beste hornidura batzuen narriatzea | d) Deterioro de mercaderías, materias primas y otros aprovisionamientos | | |
| 5. Ustiapeneko bestelako diru sarrerak | 5. Otros ingresos de explotación | 5.131.450,30 | 4.999.132,69 |
| a) Sarrera gehigarriak eta ohiko kudeaketak eragindako bestelako sarrerak | a) Ingresos accesorios y otros de gestión corriente | | |
| b) Ekitaldiaren emaitzari gehitutako ustiapen dirulaguntzak | b) Subvenciones de explotación incorporadas al resultado del ejercicio | 5.131.450,30 | 4.999.132,69 |
| 6. Langile gastuak | 6. Gastos de personal | -17.262.467,54 | -15.509.327,54 |
| a) Lansariak, soldatak eta asimilatuak | a) Sueldos, salarios y asimilados | -16.184.087,58 | -14.569.407,79 |
| b) Karga sozialak | b) Cargas sociales | -1.078.379,96 | -939.919,75 |
| c) Horniketak | c) Provisiones | | |
| 7. Bestelako ustiapen gastuak | 7. Otros gastos de explotación | -2.583.417,85 | -2.153.182,00 |
| a) Kanpoko zerbitzuak | a) Servicios exteriores | -2.538.227,00 | -2.103.742,75 |
| b) Tributuak | b) Tributos | -52.753,35 | -41.751,86 |
| c) Horniketen galera, narriatzea eta aldaketa merkataritza eragiketengatik | c) Pérdidas, deterioro y variación de provisiones por operaciones comerciales | 7.562,50 | -7.687,39 |
| d) Kudeaketa arrunteko beste gastuak | d) Otros gastos de gestión corriente | | |
| 8. Ibilgetuaren amortizazioa | 8. Amortización del inmovilizado | -748.373,00 | -774.120,31 |
| 9. Finantzetakoa ez den ibilgetuaren eta bestelakoen dirulaguntzak egoztea | 9. Imputación de subvenciones de inmovilizado no financiero y otras | 165.759,63 | 156.039,70 |
| 10. Horniketen gaindikinak | 10. Excesos de provisiones | 30.750,00 | |
| 11. Narriatzea eta ibilgetua besterentzearen emaitza | 11. Deterioro y resultado por enajenaciones del inmovilizado | 274.861,22 | 242.933,58 |
| a) Narriatzeak eta galerak | a) Deterioros y pérdidas | 274.861,22 | 243.165,77 |
| b) Besterentzeen eta bestelakoen emaitzak | b) Resultados por enajenaciones y otras | | -232,19 |
| A-1) USTIAPENAREN EMAITZA (1+2+3+4+5+6+7+8+9+10+11) | A-1) RESULTADO DE EXPLOTACIÓN (1+2+3+4+5+6+7+8+9+10+11) | -184.631,36 | 1.231.386,67 |

| 2022KO EKITALDIARI DAGOKION SARREREN ETA GASTUEN KONTUA - INDESA 2010 | CUENTA DE PERDIDAS Y GANANCIAS CORRESPONDIENTE AL EJERCICIO 2022 - INDESA 2010 | 2022KO EGITERAPENA<br>EJECUCIÓN 2022 | 2021KO EGITERAPENA<br>EJECUCIÓN 2021 |
|---|---|---|---|
| 12. Finantza sarrerak | 12. Ingresos financieros | 1.130,31 | |
| a) Ondare tresnetan partaidetza | a) De participaciones en instrumentos de patrimonio | | |
| a1) Taldeko enpresetan eta enpresa elkartuetan | a1) En empresas del grupo y asociadas | | |
| a2) Hirugarrenetan | a2) En terceros | | |
| b) Aktibo ibilgetuaren balio negoziagarriak eta kredituak | b) De valores negociables y de créditos del activo inmovilizado | 1.130,31 | |
| b1) Taldeko enpresena eta enpresa elkartuena | b1) De empresas del grupo y asociadas | | |
| b2) Hirugarrenena | b2) De terceros | 1.130,31 | |
| 13. Finantza gastuak | 13. Gastos financieros | -9.513,51 | -1.925,00 |
| a) Taldeko enpresekiko eta elkartuekiko zorrak direla-eta | a) Por deudas con empresas del grupo y asociadas | | |
| b) Hirugarrenekiko zorrak direla-eta | b) Por deudas con terceros | -9.513,51 | -1.925,00 |
| c) Horniketen eguneratzea dela-eta | c) Por actualización de provisiones | | |
| 14. Arrazoizko balioaren aldaketa finantza tresnetan | 14. Variación de valor razonable en instrumentos financieros | | |
| a) Negoziazio zorro eta bestelakoak | a) Cartera de negociación y otros | | |
| b) Saltzeko dauden finantza aktiboak ekitaldiaren emaitzari egoztea | b) Imputación al resultado del ejercicio por activos financieros disponibles para la venta | | |
| 15. Truke diferentziak | 15. Diferencias de cambio | | |
| 16. Narriatzea eta finantza tresnak besterentzearen emaitza | 16. Deterioro y resultado por enajenaciones de instrumentos financieros | | |
| a) Narriatzeak eta galerak | a) Deterioros y pérdidas | | |
| b) Besterentzeen eta bestelakoen emaitzak | b) Resultados por enajenaciones y otras | | |
| A.2) FINANTZA EMAITZA (12+13+14+15+16) | A.2) RESULTADO FINANCIERO (12+13+14+15+16) | -8.383,20 | -1.925,00 |
| | | | |
| A.3) ZERGEN AURREKO EMAITZA (A.1+A.2) | A.3) RESULTADO ANTES DE IMPUESTOS (A.1+A.2) | -193.014,56 | 1.229.461,67 |
| 17 Etekinen gaineko zerga | 17 Impuestos sobre beneficios | | -95.898,01 |
| A.4) EKITALDIAREN EMAITZA ERAGIKETA JARRAITUAK KONTUAN HARTUTA (A.3+17) | A.4) RESULTADO DEL EJERCICIO PROCEDENTE DE OPERACIONES CONTINUADAS (A.3+17) | -193.014,56 | 1.133.563,66 |
| | | | |
| B) ETENDAKO ERAGIKETAK | B) OPERACIONES INTERRUMPIDAS | | |
| 18. Ekitaldiaren emaitza zerga garbien etendako eragiketak kontuan hartuta | 18. Resultado del ejercicio procedente de operaciones interrumpidas neto de impuestos | | |
| A.5) EKITALDIAREN EMAITZA (A.4+18) | A.5) RESULTADO DEL EJERCICIO (A.4+18) | -193.014,56 | 1.133.563,66 |

# V.3.3.- Memoria / Memoria

***"INDESA 2010, S.L."***

***2022KO EKITALDIAREN MEMORIA***

## *1. OHARRA- SOZIETATEAREN JARDUERA*

INDESA 2010 SL sozietatea 2010eko abenduaren 23an eratu zen denbora mugagaberako, eta 2011ko urtarrilaren 1ean hasi ziren haren jarduerak.

Gasteizko Alaba Jeneralaren kaleko 10. zenbakiko 5. solairuan du egun sozietateak egoitza soziala.

Haren helburu soziala hau da:

> "Kalitateko lan aukerak eta gizarte, ekonomia eta ingurumen aldetik iraunkorrak direnak sortzea Arabako pertsona desgaituentzat, laneratzea eta gizarteratzea lortzeko, betiere, enplegu zentro berezi gisa.
>
> Sozietateak gaur egungo edo etorkizuneko legerian sartzen den edozein jarduera sustatuko du, ezindutako pertsonak enplegu arruntean sartzea errazten badu, baita pertsonei, gizarteari edo industriari oro har zuzendutako zerbitzu jarduerak ere, inolako mugarik gabe, bere xedean azaldutakoak izan ezik, ezindutako pertsonek enplegua eskuratzeko balio badute. Enplegu zerbitzu publikoekiko lankidetza bultzatuko du, ezindutako pertsonak lanerako gaitzeko eta orientatzeko. Gainera, enplegagarritasun zaila duten kolektiboei enplegua ematen dien lan bitartekaritza sustatuko du, bai babestutako enpleguaren eremuan bai enplegu arruntaren eremuan.
>
> Sozietateak estatutuetan jasotako araubide juridikoaren arabera egin beharko ditu bere helburua osatzen duten jarduerak, aurreko artikuluan aipaturiko herri administrazioek edo botere esleitzaileek agintzen dizkioten neurrian, haien berezko bitarteko instrumentala eta zerbitzu teknikoa den aldetik. Jarduera hauexek osatzen dute sozietatearen helburua:
>
> - Pertsonentzako zerbitzuak: Egoitzetan garbiketa egin, arropa garbitu eta otorduak prestatzeko zerbitzua, eta gaur egun edo etorkizunean INDESA 2010 SLren helburuak betetzeko komenigarria den beste edozein jarduera.
> - Gizartearentzako zerbitzuak: Eraikinak garbitzea, industria edo ospitaleetako arropa garbitzea, berdeguneak mantentzea, sukaldaritza eta gaur egun edo etorkizunean INDESA 2010 SLren helburuak betetzeko komenigarria den beste edozein jarduera.
> - Industriarako zerbitzuak, oro har: Jarduera espezializatuak edo industriak berezko dituenak, izan ekoizpen prozesuaren parte, edo izan jarduera edo zerbitzu lagungarri, baina beharrezkoak direnak industria jarduera osorik gauzatzeko. (Manipulatuak, mekanizatuak, muntaketak, salgaien erosketa, logistika, administrazioa, bilgarriak eta gaur egun edo etorkizunean INDESA 2010 SLren helburuak betetzeko komenigarria den beste edozein jarduera).
>
> Beharrezko zentro eta instalazioak dauzka jarduerok garatzeko.
>
> Egun gauzatzen dituen egitekoak berez dagozkio helburu sozialari.
>
> Sozietateak berak zuzenean edo zuzenbideak onartzen dituen moduetako beste edozeinetan gauzatu ahal izango ditu jarduera horiek, hala nola helburu bera edo antzekoa duten beste erakunde batzuetan bazkide

gisa parte hartuz.

Sozietatearen xedetik kanpo geratzen dira sozietateak betetzen ez dituen eta legeak eskatzen dituen betekizun bereziak eskatzen dituzten jarduera guztiak".

Sozietatea Arabako Lurralde Historikoko enplegu zentro berezi gisa kalifikatuta dago eta foru administrazioaren zati da. Bitarteko propio instrumentaltzat eta zerbitzu teknikotzat jotzen dute sozietatea Arabako Foru Aldundiak, Arabako Batzar Nagusiek, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak, Eusko Legebiltzarrak eta hala erabakitzen duten udalerrietako Toki Administrazioak, bai eta Sektore Publikoko araubide juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 86. artikuluan eta Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 4., 6.3., 31. eta 32. artikuluetan aurreikusitako ondorioetarako botere esleitzaile diren erakundeekin lotutako erakunde, organismo eta entitateek ere.

2018ko martxoaren 9an, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legea sartu zen indarrean. Lege horren bidez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora. Lege horretan, Administrazioaren "bitarteko propioa" deritzonaren, kudeaketa esleipenen edo "in house" izeneko teknikaren aplikazio praktikoaren erregulazio berri bat ezartzen da; orain, "baliabide propioei egindako enkarguak" deituko zaio, eta erakunde horiek bete beharreko eskakizunak areagotu egin dira, lehia askearen printzipioa kaltetu dezaketen zuzeneko esleipenak saihesteko. Ezarritako eskakizunen artean dago erakunde horiek "bitarteko propio" izaera izatea, egiten zaien enkargua betetzeko baliabide pertsonal eta material egokiak izatea, dagokion botere esleitzailearen baimena jaso izana, enpresa pribatu baten partaidetzarik ez izatea eta Estatuko 2021erako Aurrekontu Orokorren 11/2020 Legearen berrogeigarren XGan jasotako enkarguei bideratutako jarduera ehunekoa dela eta ezarritakoa betetzea. Indesa 2010 SLk, estatutuen arabera, betetzen ditu Arabako Foru Aldundiaren, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta hala xedatzen duten udalerrietako Toki Administrazioaren bitarteko propiotzat hartua izateko baldintzak.

Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuak erabaki zuen Indesa 2010 SLri Gizarte Ekimeneko Enplegu Zentro Bereziaren kalifikazio ofiziala ematea, eta, ondorioz, irabazteko xederik gabeko erakundea da.

## *2. OHARRA- <u>URTEKO KONTUAK AURKEZTEKO OINARRIAK</u>*

### *a) <u>Irudi fidela</u>*

Erantsitako urteko kontuak sozietatearen kontabilitate erregistroetatik lortu dira, eta Kontabilitate Plan Orokorra onesten duen 1514/2007 Errege Dekretuan eta kontabilitatearen arloan indarrean dauden gainerako lege xedapenetan jasotako kontabilitate printzipioei eta balorazio irizpideei jarraituz formulatu dira, eta, beraz, ondarearen, finantza egoeraren eta ekitaldiko emaitzen irudi fidela erakusten dute, bai eta ondare garbiaren eta eskudiruaren fluxuen egoera orrian sartutako fluxuen aldaketak ere.

Sozietateko administratzaileek egin dituzte kontuak, eta Bazkideen Batzar Orokorrak onartu behar ditu. Inolako aldaketarik egin gabe onartuko direla uste da.

2021eko ekitaldiko urteko kontuak 2022ko ekainaren 20an onartu zituzten bazkideek batzar nagusian.

***b) Informazioa alderatzea***

Alderatuak izan daitezen aurkezten dira egoera balantzearen, galera-irabazien kontuaren, ondare garbiaren aldaketen egoera orriaren, eskudiruaren fluxuen egoera orriaren eta urteko kontuen memoriaren partida bakoitzeko ekitaldiko zenbatekoez gain, aurreko ekitaldikoak ere. Bi ekitaldietako zenbatekoak antzekoak dira.

Urteko kontuak osatzen dituzten finantza egoerak 8/2014 Foru Dekretuak onetsitako ereduaren arabera aurkezten dira.

Legez beharturik dago sozietatea ekitaldi honetako kontuak ikuskatzera, eta beharturik egon zen aurreko ekitaldikoak ikuskatzera.

***c) Balorazioaren alderdi kritikoak eta ziurgabetasunaren kalkulua***

Funtzionamenduan dagoen enpresaren printzipioa betez egin ditu sozietateak bere urteko kontuak; izan ere, ez da eman hurrengo ekitaldiko aktibo edo pasiboen balioan aldaketa esanguratsurik eragingo duen arrisku garrantzitsurik.

Erantsitako urteko kontuetan zuzendaritzak egindako kalkuluak erabili dira noizean behin, aktibo, pasibo, diru sarrera, gastu eta konpromiso batzuk kuantifikatzeko. Nahiz eta kalkulu horiek aztertutako gertakariei buruzko kontuak formulatzeko datan eskuragarri zegoen informazio onenaren arabera egin ziren, litekeena da hurrengo ekitaldietan horiek aldatzera behartuko gaituzten gertaerak jazotzea etorkizunean, eta hori modu prospektiboan egingo litzateke, kalkuluaren aldaketaren ondorioak aitortuz. Kalkuluek, funtsean, honako kontu hauei eragiten diete:

- Aktibo material eta ukiezinen balio bizitza.
- Emandako dirulaguntzak emaitzetan aplikatzea.
- Sortutako ustiapen dirulaguntzen zenbatespena.
- Merkataritza kredituen balioaren narriadura.

***d) Hutsen zuzenketa***

2021eko ekitaldian, akatsak zuzentzeagatiko doiketak egin dira, eta borondatezko erreserben kontua 14.090,74 euro handitu da.
Ekitaldi honetan, akatsak zuzentzeagatiko doiketak egin dira, eta borondatezko erreserben kontua 52.302,46 euro handitu da.

***e) Kontabilitate irizpideen aldaketak***

Oraingo ekitaldian eta aurrekoan ez da aldaketa esanguratsurik izan kontabilitate irizpideetan, aurreko ekitaldian aplikatutakoekin alderatuta.

***f) Partidak multzokatzea***

Urteko kontuek ez dute partida multzokaturik balantzean, galera-irabazien kontuan, ondare garbiaren aldaketen egoera orrian edo eskudiruaren fluxuen egoera orrian.

***g) Hainbat partidatan jasotako elementuak***

Ez dago partida bitan edo gehiagotan erregistratutako ondare elementurik.

***h) Garrantzi erlatiboa***

Memoria honetan finantza egoeren eta beste gai batzuen partidei buruz banakatu beharreko informazioa zehazterakoan, sozietateak, Kontabilitate Plan Orokorraren kontzeptu esparruaren arabera, garrantzi erlatiboa hartu du kontuan.

***3. OHARRA- EMAITZAK APLIKATZEA***

Hona hemen administratzaileek Bazkideen Batzar Orokorrari emaitzak banatzeko egindako proposamena:

| | Ejercicio 2022 | Ejercicio 2021 |
|---|---|---|
| Base de Reparto | -193.014,56 | 1.133.563,66 |
| - Pérdidas y ganancias | -193.014,56 | 1.133.563,66 |
| Distribución | -193.014,56 | 1.133.563,66 |
| - Reserva legal | 0,00 | 113.563,66 |
| - Reservas voluntarias | 0,00 | 1.020.000,00 |
| - Resultados negativos ejer. Anteriores | -193.014,56 | 0,00 |

## *4. OHARRA- ERREGISTRO ETA BALORAZIO ARAUAK*

Hona hemen ekitaldian aplikatutako erregistro eta balorazio arauak:

### *a) Ibilgetu ukiezina*

Bizitza baliagarri mugatua duten aktibo ukiezinak modu sistematikoan amortizatzen dira, kalkulatu zaien bizitza baliagarriaren arabera eta horien hondar balioaren arabera. Amortizatzeko aplikatu diren metodoak eta aldiak ekitaldi bakoitza ixtean berrikusten dira eta, behar izanez gero, modu prospektiboan doitzen dira. Ekitaldia ixtean behintzat, narriatze aztarnarik dagoen aztertzen da, eta horrela izanez gero, berriro eskuratu daitezkeen zenbatekoak zenbatu eta egin beharreko balio zuzenketak egiten dira.

Hasierako azterketaren ostean, honako era honetan balioesten da: kostua ken amortizazio metatua eta, hala badagokio, ken narriadura dela-eta balioan egin beharreko zuzenketa.

Ibilgetu ukiezin bakoitzean aztertu eta zehazten da bizitza baliagarria mugatua edo mugagabea den.

Aplikazio informatikoak eskuratze kostuaren arabera baloratzen dira hasieran, eta modu linealean amortizatzen dira, % 10eko ehunekoa aplikatuta.

Sozietateak kontabilitatean jasotzen du aktibo horien balio erregistratuan izandako edozein galera, narriaduratik eratorria, eta galera-irabazien kontuko "Narriaduragatiko galera garbiak" epigrafea erabiltzen du kontrapartida gisa. Ekitaldi honetan ez da aktibo ukiezinen ondoriozko "narriaduragatiko galera garbirik" kontabilizatu.

Aplikazio informatikoen hornidura 16.954,12 eurokoa izan da 2021eko ekitaldian, eta 19.279,77 eurokoa 2022an.

Arabako Foru Aldundiaren jabetzako higiezinak doan erabiltzeko eskubidea baloratu da laga zen eguneko arrazoizko balioan. Modu linealean amortizatuko da lagapen epean. Ekitaldiko amortizazio zuzkidura 72.803,96 euro izan da (62.575,66 euro, 2021an).

### *b) Ibilgetu materiala*

Ondasun ibilgetu guztiak enpresaren ekoizpen normalaren zikloan erabiltzen dira edo erabiliko dira. Ez dago aktiborik ez salgai, ez errentan. Beraz, ibilgetu materialaren kontuan sailkatzen dira guztiak.

Eskuratze prezioaren edo ekoizpen kostuaren arabera balioesten dira, eta, beraz, fakturatutako zenbatekoaz gain (prezioan edozein deskontu edo beherapen kenduta), martxan jarri arte sortzen diren gastu gehigarri eta zuzeneko guztiak eta jasanarazi ezin diren zergak ere hartzen dira kontuan. Horri dagokionez, ibilgetua eskuratzean jasandako balio erantsiaren gaineko zerga ez da kengarria sozietatearentzat, eta ibilgetuaren balioaren zati bat da.

Sozietatea eratzean eta ondorengo kapital zabalkuntzetan erantsitako ibilgetuko elementuak, sozietatearen eratze eskrituraren eta kapital zabalkuntzen ondorioetarako, diruzkoa ez den ekarpen gisa esleitutako zenbatekoan balioesten dira.

Sozietateari erabiltzeko lagatako aktiboak ibilgetu material gisa erregistratzen dira, bete egiten direlako aktibo horiek ibilgetuan erregistratzeko ezarritako baldintzak, lagapen aldia eta erabilera baldintzak kontuan izanda.

Sozietateak ez du konpromisorik aktibo ondasunak desegin, kendu edo birgaitzeko. Horregatik, ez da aktiboan zenbatetsi etorkizuneko obligazio horiek estaltzeko baliorik.

Erakundeak, beraz, erabili, ustiatu edo saltzeko moduan egoteko urtebete baino gehiago behar duen ibilgetu materialaren kostuan sartzen ditu finantzaketa berezi edo orokorrarekin lotutako finantza gastuak, eskuratze, eraikitze edo ekoizteari zuzenean egotz dakizkiokeenak.
Kontabilitate balio garbia balio berreskuragarria baino handiagoa bada, erregistratu egiten da ibilgetu materialaren elementu balioaren narriaduragatiko galera. Balio berreskuragarria da haren arrazoizko balioari salmenta kostuak eta erabilpen balioa kendutakoan ematen duen zenbateko handiena. Ez da gertatu inguruabarrik narriaduragatiko galera erregistratzea ondorio duenik.

Dagokion gastu kontuan jasoko dira sozietateak egindako obrak eta lanak direla-eta ekitaldian zehar gastatutakoak. Ondasunen ekoizpen ahalmena handitzea edo balio bizitza luzatzea eragiten duten handitze edo hobetze kostuak aktiboan txertatzen dira, haren balio handiago gisa.

Ibilgetu materialeko elementuen amortizazioa, hala, abian jartzeko eskuragarri daudenetik egiten da, modu linealean balioetsitako bizitza erabilgarrian zehar, hain zuzen. Hala, hondar balioa hutsa izango dela kalkulatzen da. Hona hemen bizitza erabilgarriko urteak:

| Inmovilizado | Coeficiente Anual | Vida Útil |
|---|---|---|
| - Construcciones | 3,33% | 30 |
| - Instalaciones técnicas | 10,00% | 10 |
| - Maquinaria | 10,00% | 10 |
| - Utillaje | 20,00% | 5 |
| - Mobiliario | 10,00% | 10 |
| - Equipos informáticos | 16,60% | 7 |
| - Elementos transporte | 12,50% | 8 |
| - Otro Inmovilizado | 6,66% | 15 |

Amortizatzeko zuzkidura 694.590,53 eurokoa izan zen 2021an, eta 656.289,77 eurokoa 2022an.

***c) <u>Finantza tresnak</u>***

Erakundeak finantza tresnen kapituluan erregistratuta dauzka enpresa batean finantza aktibo bat eta, aldi berean, beste enpresa batean finantza pasibo bat edo ondare tresna bat sortzen duten kontratuak. Beraz, honako hauek dira finantza tresnak:

*Finantza-aktiboak:*

- Ondare tresnak
- Merkataritza eragiketengatiko kredituak: bezeroak eta hainbat zordun.
- Merkataritzakoak ez diren beste zor batzuk.

*Finantza-pasiboak:*

- Merkataritza eragiketengatiko zordunketak: askotariko hornitzaile eta hartzekodunak.
- Kreditu erakundeekiko zorrak.
- Beste finantza pasibo batzuk.

***c.1) Finantza-aktiboak***

*Ondare tresnak*

1514/2007 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Kontabilitate Plan Orokorra (9. araua, finantza tresnak eta kontabilitate estaldurak) aldatzen duen urtarrilaren 12ko 1/2021 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera, taldeko enpresetako, talde anitzetako eta elkartuetako partaidetzak kostuko aktibo finantzarioen kategorian sailkatzen dira. Arrazoizko balioan balioztatzen dira, hau da, transakzioaren prezioan: emandako kontraprestazioaren arrazoizko balioa gehi zuzenean egozten zaizkion transakzio kostuak. Gero, kostuaren arabera baloratuko dira, narriaduragatik egindako balio zuzenketen zenbateko metatua kenduta.

*Kostu amortizatuko finantza-aktiboak*

Partida honetan erregistratu dira merkataritzako eragiketen eta merkataritzakoak ez diren eragiketen ziozko kredituak, zenbateko jakin bat dutenak. Horietan sozietateak ordaindutakoa berreskuratzea aurreikusten da.

1514/2007 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Kontabilitate Plan Orokorra (9. araua, finantza tresnak eta kontabilitate estaldurak) aldatzen duen urtarrilaren 12ko 1/2021 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera, amortizatutako kostuko aktibo finantzarioen kategorian sailkatzen dira.
Hasieran eta geroago, arrazoizko balioaren arabera erregistratzen dira: transakzioaren prezioa gehi zuzenean egotzi daitezkeen kostuak. Gero, kostuaren arabera baloratuko dira, narriaduragatik egindako balio zuzenketen zenbateko metatua kenduta.

*Balio narriadura*

Finantza aktiboek liburuetan duten balioaren zuzenketa, berriz, galeren eta irabazien kontuaren kargura egiten da, narriaduraren ziozko galera badago. Narriaduraren zantzuak daudela usteko da baldin eta finantza aktiboen balio berreskuragarria liburuetan dutena baino gutxiagoa bada.

Narriaduraren ziozko galera ebaluatzeko, aldiz, saldo zordunen banakako azterketa egiten da, aspaldikoak direlako edo ezaugarri bereziak dituztelako kobratzeko arriskua dutenak hartuta.

***c.2) Finantza-pasiboak***

*Kostu amortizatuko finantza-pasiboak*

Epigrafe honetan sartzen dira erosketen eta zerbitzu emateen zorrak, bai eta merkataritzakoak ez diren eragiketen zordunketak ere, sozietateak jasotako mailegu edo kreditu eragiketetatik datozen tresna eratorriak ez badira.

Zuzenean egotzi daitezkeen gastuak, hala, onartzen diren unean bertan edo geroago erregistratzen dira, arrazoizko balioan, hau da, transakzioaren prezioan. Balio hori kalkulatzeko, gainera, kontraprestazioaren balioa eransten da. Irizpide hori aplikatzen da, pasiboak epe motzean likidatuko direla uste delako, edo, muga-egun luzekoetan, kontratuzko interes tasa bat ezarrita dutelako.

***d) Izakinak***

Sozietatearen jardueretan erabilitako lehengaiak eta materialak eroste prezioaren arabera balioesten dira, eta prezio horretan sartzen dira ordainagiriko prezioa eta BEZ jasanarazi eta ez kengarria. Narriadurarengatiko hornidura funtsa ezartzen da narriadura edo balio galerarik antzematen bada.

***e) Eskudirua eta beste aktibo likido baliokide batzuk***

Kutxako eskudirua eta bankuko kontu korronteak sartzen dira epigrafe honetan, baldin eta hurrengo baldintza hauek betetzen badituzte:

- Eskudiru bihur daitezke.
- Eskuratzean, gehienez hiru hilabeteko epemuga zuten.
- Balioa aldatzeko arrisku handirik ez dute.
- Sozietatearen diruzaintzako kudeaketa politika orokorrean sartzen dira.

***f) Mozkinen gaineko zerga***

Mozkinen gaineko zerga kontabilitate emaitzatik abiatuta kalkulatzen da, zerga oinarriarekiko doikuntzak aplikatuta. Zerga oinarria zehaztu ondoren, karga tasa aplikatzen da, eta ateratzen den kuota sozietateak eskubidez dituen kenkariek murrizten dute, zerga arruntaren ondoriozko gastua izanik, zerga geroratuaren ondoriozko gasturik agerian utzi gabe.
Hala ere, zerga oinarria negatiboa izan da ekitaldian.
Bestalde, hurrengo ekitaldietan konpentsatu beharreko zerga oinarri negatiboetatik eratorritako zerga kredituaren eragina ez da erregistratu.

***g) Aktiboen eta pasiboen sailkapena: arruntak eta ez arruntak***

Balantzean, aktiboak eta pasiboak sailkaturik ageri dira, korronte eta ez-korrontetan. Horretarako, aktiboak eta pasiboak arruntak izaten dira sozietatea ustiatzeko ziklo arruntari lotuta daudenean eta ziklo horretan zehar saltzea, kontsumitzea, gauzatzea edo likidatzea espero denean, edo horien epemuga, besterentzea edo gauzatzea beranduen urtebetean egitea espero denean. Aurrekoen bestelakoak dira. Negoziazio helburuarekin eusten zaie, edo eskudiru eta urtebetetik gorako aktibo likidoak dira.

Ustiapen ziklo arrunta urte batetik beherakoa da.

***h) Bazkideen ekarpenak***

Administrazio Publikoa osatzen duten bazkideek kontraprestaziorik gabe egiten dituzten finantza ekarpenak, sozietateak defizitak edo funtzionamendu gastu orokorrak finantzatzeko egiten dituen jarduerekin lotuta daudenak, ez dira sarreratzat hartzen, eta ondare garbia osatzen duten bazkideen ekarpentzat hartzen dira.

***i) Dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak***

Kapital dirulaguntzatzat hartzen dira bazkideek ibilgetua zuzenean finantzatzeko, hura finantzatu zuten maileguak amortizatzeko edo hura eskuratzeagatik zorrak kitatzeko egiten dituzten finantza ekarpenak.
Emandako zenbatekoaren arabera erregistratzen dira, ordaindutako kopuru bera da-eta. Emaitzetan jasotzeko, diruz lagundutakoaren amortizazio prozesura egokitzen da.
Enplegu zentro berezi izateagatik lortutako ustiatze dirulaguntzak galera-irabazien kontuan egindako diru sarrera gisa erregistratzen dira, lortutako zenbatekoa kalkulatuz. Zenbateko hori diruz lagundutako gastu errealean eta dirulaguntzaren oinarri arauetan zehaztutako baldintzetan oinarrituta kalkulatzen da. Kalkulatutako zenbatekoaren eta likidatutakoaren artean ez dago alde handirik.
Dirulaguntzaren araudiak eskatutako baldintza guztiak bete ditu sozietateak; beraz, ez dago itzuli behar izateko arriskurik.

***j) Balio erantsiaren gaineko zerga***

